**KORRIKA KULTURALA**

Emakumeak izango dira protagonista Korrika kulturalaren egitarauaren barruan Arrasaten antolatu den kontzertu batean. Bi bakarlarik (Anari eta Labrit) eta emakumezko abeslaria duten hiru taldek, (Dantzut, Zea Mays eta Kashbad) joko dute gaur gaueko 22.30etan Arrasateko Kiroldegian. Azpeitian ere rock kontzertua antolatu da. Latzen eta 12 Tribu taldeek joko dute herriko enparantzan. Astigarragan bestalde Sagardo eguna buruko da gaurko egunez. Goizean trikitilari, bertsolari eta artisauek berotuko dute giroa, gero bazkaltzera sagardotegira eta arratsaldean jaialdia izango da, Morau, Joxe Ripiau, Txatunga Benbe eta Mundiñano anaiek parte hartuko dutelarik. Hiru ekitaldi hauek Korrika Kulturala izenburuarekin antolatu den egitarau zabalaren parte bat besterik ez dira. Herri gehienetan izango da zerbait asteburuan korrikaren inguruan.




